

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak arreta gomendatzen du maila baxuetan elurra egingo duelako eta izozteak nonahi izango direlako

Argindarra bueltatu da, oro har, Pirinioetan, eta uholde-arriskuagatik zegoen alerta-maila jaitsi

Martes, 03 de febrero de 2015

Nafarroako Gobernuak arreta handia izatea gomendatu die herritarrei ikusirik datozen orduetarako zer [meteorologia-iragarpen](#) egin den; maila baxuetan elurra egitea espero da, eta elur-prezпитazioak tarteka ugariak izan daitezke mendebaldean; horrekin batera, tenperatura asko jaitisiko da, eta horrek izozte orokorrak eragin ditzake, mendialdean handiagoak izan daitezkeenak.

Egoera hori ikusirik, Sustapen Departamentuak eta Nafarroako Autobideko (AP-15), Bideko Autobiako (A-12) eta Pirinioetako Autobiako (A-21) enpresa emakidadunek elurra kentzeko 40 ekipo mugiaraziko dituzte gaur, asteartea, bideak garbitzeko eta prebentziozko lanak egiteko, gatza zabaltzea, adibidez. Gaez, 26 izango dira, eta bihar, asteazkena, 32 aritzea espero da.

Bien bitartean, gaur goizean goiz oraindik argindarrak ez zuten hamar bat udalerritara bueltatu da argindarra ia erabat; hala, asteburuan, Nafarroako Pirinioetako hogeita bat udalerrietako 3.000 abonatu inguru argindarrak gabe izan dira, baina egoera horri buelta ematea lortu da dagoeneko.

Bestalde, [Uholde Arriskuaren aurkako Plan](#)aren zuzendaritzak alerta-maila murriztea erabaki du, ibaien emariaren bilakaera eta eragindako ondorioak ikusirik, bai eta epe laburrerako meteorologia-aurreikuspenak ikusirik ere. 0 egoerako larrialdi-fasetik (uholdea berehalakoa denean edo jadanik hasita dagoenean) larrialdi aurreko fasera (alerta-egoeran kontrako bilakaera batek uholderen bat eragin badezake ere) pasa da.

Ebro ibaia zaintzen ari dira bereziki, nahiz eta bertako [emaria](#) jaisten ari den, Castejongo estazioak emandako datuen arabera. Sei metroko altueraren azpitik dago, eta 1.200 metro kubiko segundo bakoitzeko, igandetik astelehenerako gauan iritsi zen gehieneko mailatik urrun: 2.000 metro kubikotik gora eta 7,3 metroko altuera.

Hala ere, N-113 errepideak moztuta segitzen du (Iruña-Madril), Castejon parean, 75 eta 77 kilometro-puntuaren artean, Ebro ibaiak gainezka egin duelako. Errepide-sare nagusian izandako kalte bakarra da; gainerakoan, bide guztiak zabalik daude. Bigarren mailako sarean, berriz, zenbait errepide kaltetuta daude, mendialdean bereziki, Foru Gobernuko

[errepide-mapak](#) erakusten duenez.

Egoera horrek gorabeheratxoren bat eragin du eskolako garraioan, goizeko lehen orduan. Tierra Estella BHLren kasuan, Lezaun, Ibiriku, Iruñela eta Abartzuza linea osatzen duen autobusak ezin izan du bere zerbitzua eman, eta Erronkariko ikastetxe publikoan, Bidankozeko ibilbideak atzerapenen bat izan du.

Hotzari aurre egiteko gomendioak

Osasun Departamentuak kalera ez irteteko [gomendioa](#) eman du, adineko pertsoneri edo gaitz kronikoak dituzten pertsonei bereziki; horrekin batera, kanpoaldean ariketa fisiko bizia ez egitea, hotza, berez, gainzama delako bihotzerako. Etxean, nolana ere, eserita denbora asko ez egotea aholkatzen da, eta ariketa fisiko apur bat egitea, hotzari aurre egiten laguntzen baitio.

Autoan, egunez zirkulatzea gomendatzen da, errepide nagusietatik edo bide azkarretatik; pneumatikoak, balaztak, bateria, izotz-kontrakoa, argiak, hozgarria eta berogailua berrikustea bidaiatu aurretik, bai eta [errepideak zer egoera](#)tan dauden kontsultatzea ere Nafarroako Gobernuko webgunean edo ondorengo telefono-zenbakira dei eginez: 848 423 500.

Gainera, tanga erregaiz betetzea gomendatzen da, berotzeko arropa eramatea, kateak edo neguko pneumatikoak eramatea, telefono mugikorra kargailuarekin, eta alkohola nahiz karrakagailu bat izotza haizetakotik kentzeko.